

Sin./Fdo.: FRANCISCO JAVIER ARNAIZ ALONSO DE LECIÑANA 2025-02-12  
KUDEAKETA ADMINIST.ETA HITZARTURIKO INBERTSIOAK BIDERATZ. AT  
JEFE/A SECCIÓN GESTIÓN ADMINISTRAT. E INVERSIONES CONVENIDAS

Sin./Fdo.: PILAR TRUEBA FERNANDEZ 2025-02-12  
BIDEEN SEGURTASUN.,HOBEKUNTZA,MODERNIZAZ. ZERBITZUKO BURUA  
JEFE/A SERVICIO DE SEGURIDAD VIAL, MEJORA Y MODERNIZACIÓN

Sin./Fdo.: JOSE MIGUEL DE LA FUENTE CASADO 2025-02-12  
AZPIEGITURAK GARATZEKO ZUZENDARIORDEA  
SUBDIRECTORA/A DE DESARROLLO DE INFRAESTRUCTURAS

Sin./Fdo.: AITOR ETXEBARRIA ATUTXA 2025-02-13  
LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA  
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

**ERABAKIA**, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Urduñako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena onartzen duena, “BI-4533 foru errepideko 46+820 kilometro-puntuan (Mendeika, Urduñako udal-mugartea) dagoen bihurtzearen gainzabalera hobetzeko lanak”

**ACUERDO** por el que se autoriza la celebración de convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Orduña para la ejecución de los trabajos “Mejora del sobreebanco de la curva situada en la carretera foral BI-4533, p.k. 46+820 Mendeika (T.M. Orduña)”

I.- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.34 artikuluan eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoko Foruzko Jardute Erakundearen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluko a) letrako 8. puntuan xedatutakoaren babesean, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru organoek ematen dituzten errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki, aldarazi, finantzatu, erabili eta ustiatzeko eskumen eksklusiboa.

I.- En virtud de lo dispuesto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el artículo 7a) punto 8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, se atribuye a los órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia la competencia exclusiva en la planificación, proyecto, construcción, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundearen hautaketa, antolaketa, erregimena eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17. artikulua, Bizkaiko Foru Aldundiari dagozkion eskumenak arautzen ditu.

La Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, regula en su artículo 17 las competencias que corresponden a la Diputación Foral de Bizkaia.

II.- Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eskumena ematen dituzten udal, besteak beste, bide-segurtasunaren antolakuntzaren eta kudeaketaren arloan, bere udal mugarteko bide publikoen kontserbazioa eta mantenua barne.

II.- Que la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuye a los municipios competencia en materia de ordenación y gestión, entre otras, de la seguridad vial, así como en materia de ordenación y gestión, incluida la conservación y mantenimiento, de las vías públicas urbanas dentro de su propio término municipal.

III.- Bi administrazioek dute interesa, “BI-4533 foru errepideko 46+820 kilometro-puntuan (Mendeika, Urduñako udal-mugartea) dagoen bihurtzearen gainzabalera hobetzeko lanak” lanak gauzatzeko, erradio eta zabalera murriztutako bihurtze baten trazatua hobetzeko, arriskuko

III.- Es de interés de ambas administraciones la ejecución de las obras de “Mejora del sobreebanco de la curva situada en la carretera foral BI-4533, p.k. 46+820 Mendeika (T.M. Orduña)” para mejorar el trazado de una curva de radio y anchura reducida, que provoca situaciones de peligro en los cruces de





egoerak sortzen baitira ibilgailuen arteko gurutzaketetan. vehículos.

IV.- Hori dela eta, bi administrazioen interesak bakoitzaren eskumeneren ikuspuntutik koordinatzeko xedearekin, lankidetzaz irizpideak aplikatuz, ahalik eta modurik eraginkor eta ekonomikoenean jokatzuz, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak araupepetu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluan, horrekin bat datozen gainerako manuetan eta aplikatu behar diren arauetan ezarritakoari jarraituz, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu behar da, herri administrazioen artean sinatzen diren hitzarmenak (kasu honetan bezala) arautzen dituen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluari jarraikiz.

IV.- A tal efecto, con el fin de coordinar los intereses de ambas Administraciones desde el punto de vista de sus respectivas competencias atendiendo a los criterios de cooperación y máxima eficacia y economía, y haciendo uso de las facultades que para las Administraciones Públicas resultan del artículo 48 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y del artículo 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local y demás preceptos concordantes y normativa aplicable, resulta preciso formalizar un convenio de colaboración, de acuerdo al artículo 47.2. a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, que regula los convenios que se suscriben entre las Administraciones Públicas, como es el caso.

## ERABAKIA

Lehenengoa.- Baimena ematea Bizkaiko Foru Aldundiak eta Urduñako, "BI-4533 foru errepideko 46+820 kilometro-puntuan (Mendeika, Urduñako udal-mugartea) dagoen bihurgunearen gainzabalera hobetzeko lanak" egiteko lankidetzaz hitzarmen bat sinatzeko.

Hitzarmenean jasotzen dira, hain zuzen, alderdi bakoitzak hartzen dituen betebeharrak eta konpromisoak, (hitzarmenaren testua erantsita doa).

Bigarrena.- Hobekuntza-lanaren ondoriozko konpromiso ekonomikoari aurre egiteko, dokumentu hau sinatu baino lehen daude onetsita behar hainbat eta egokiak diren aurrekontu-maileguak, beti ere kontserbazioaren kontu-sailaren kargura.

Hirugarrena.- Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuari ahalmena ematea Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari lankidetzaz hitzarmen hau formalizatzeko, bai eta hura garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ere.

Laugarrena.- Erabaki hau Urduñako Udalarari jakinaraztea.

## ACUERDO

Primero.- Autorizar la celebración de un Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Orduña para la ejecución de las obras de "Mejora del sobreechancho de la curva situada en la carretera foral BI-4533, p.k. 46+820 Mendeika (T.M. Orduña)".

En el citado Convenio, cuyo texto se adjunta, se recogen las obligaciones y compromisos asumidos entre las partes.

Segundo.- En orden a hacer frente al compromiso económico derivado de la obra de mejora, están aprobados con anterioridad a la suscripción del presente documento, los créditos presupuestarios adecuados y suficientes que serán con cargo a la partida presupuestaria de conservación.

Tercero.- Facultar al Ilmo. Sr. Diputado de Infraestructuras y Desarrollo Territorial para formalizar en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia el mencionado Convenio de Colaboración, así como para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo.

Cuarto.- Notificar el presente Acuerdo al Ayuntamiento de Orduña.





Kudeaketa Administratiboa eta Hitzarturiko Inbertsioak bideratzeko Ataleko burua / Jefe de sección de Gestión Administrativa e Inversiones Convenidas. FCO. JAVIER ARNAIZ ALONSO DE LECIÑANA  
Bideen Segurtasunerako, Hobekuntzarako eta Modernizaziorako Zerbitzuko burua / Jefa de Servicio de Seguridad Vial, Mejora y Modernización. PILAR TRUEBA FERNÁNDEZ  
Azpiegiturak Garatzeko Zuzendariordea / Subdirector de Desarrollo de Infraestructuras. JOSE MIGUEL DE LA FUENTE CASADO

O.E. / Vº Bº

Lurralde Garapenerako Zuzendari Nagusia / Director General de Desarrollo Territorial. AITOR ETXEBARRIA ATUTXA

Aurreko tramitearekin bat, helaraz bekio Gobernu Kontseiluari. / De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru Diputatua / El Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA URDUÑAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, "BI-4533 FORU ERREPIDEKO 46+820 KILOMETRO-PUNTUAN (MENDEIKA, URDUÑAKO UDAL-MUGARTEA) DAGOEN BIHURGUNEAREN GAINZABALERA HOBETZEKO LANAK" EGITEKO ETA BI-4533 FORU ERREPIDEAREN TITULARTASUNA LAGATZEKO 46+770 KP-TIK 46+860 KP-RA

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA PARA LA EJECUCIÓN DE LOS TRABAJOS "MEJORA DEL SOBRECARGO DE LA CURVA SITUADA EN LA CARRETERA FORAL BI-4533 P.K. 46+820 MENDEIKA (T.M. ORDUÑA)" Y LA CESIÓN DE TITULARIDAD DE LA CARRETERA FORAL BI-4533 DEL P.K. 46+770 AL P.K. 46+860

## PARTE-HARTZAILEAK REUNIDOS

ALDE BATETIK, **CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA jauna**, Bizkaiko Foru Aldundi Txit Goreneko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatua. BFA P4800000D IFKrekin

DE UNA PARTE, **D. CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA**, Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excm. Diputación Foral de Bizkaia con CIF P4800000D

BESTE BATETIK, **. IKER SANTOCILDES PEREZ jauna**, Urduñako Udaleko alkate-udalburua (Bizkaia). Urduñako udala P4808700A IFKrekin

DE OTRA, **D. IKER SANTOCILDES PEREZ**, alcalde presidente del Ayuntamiento de Orduña (Bizkaia) con CIF P4808700A.

## ESKU HARTU DUTE INTERVIENEN

Lehenengoak, Bizkaiko Foru Txit Goreneko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatua den aldetik eta haren ordezkari gisa.

El primero en su calidad de diputado foral titular del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excm. Diputación Foral de Bizkaia, y en representación de la misma.

Bigarrenak, Urduñako alkate-udalburua den aldetik, Udalaren legezko ordezkari gisa.

El segundo como Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Orduña, en representación legal del mismo.

Parte-hartzaile biek LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri.

Ambos intervinientes se reconocen capacidad legal suficiente para otorgar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto



## ADIERAZTEN DUTE

I.- Euskal Autonomia Estatutuko 10.34 artikuluan, Autonomia Erkidegoko Institutuzio Komunen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 2/83 Legeko 8. puntuko 7 a) artikuluan eta aipatutako Legearen garapenean emandako martxoaren 5eko 17/85 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Organoek errepide eta bideen planifikazio, proiektu, eraikuntza, kontserbazio, aldaketa, finantzaketa, erabilera eta ustiapenerako eskumen eskusiboa dute.

II.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 d) artikuluan arabera, udalerrien bere eskumenen esparruaren barruan hauxe dago: bide-azpiegitura eta bere titulartasuneko beste ekipamendu batzuk. Horren harira, 26. artikulua dio udalerrri guztiek, besteak beste, herri barruko bideen zoladuraren zerbitzua bete beharko dutela. Era berean xedatzen du Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 legearen 17.1.16) artikulua.

III.- Bai Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailak bai Urduñako Udalak beharrezkotzat jotzen dute era honetan identifikatzen diren obra hauek egitea: "BI-4533 foru errepideko 46+820 kilometro-puntuan (Mendeika, Urduñako udal-mugartea) dagoen bihurtzearen gainzabalera hobetzeko lanak".

Lan horien helburua da erradio eta zabalera murriztuko bihurtze baten trazatua hobetzea, arriskuko egoerak sortzen baitira ibilgailuen arteko gurutzaketetan.

IV.- Ildo honetatik, agiri honetan ezarritakoak badu beste helburu bat ere, elkarrekin adostutakoa: BI-4533 foru errepidearen 46+770 kptik 46+860 kprainoko tartearen titulartasuna aldatzea eta Urduñako Udalarari ematea, Bizkaiko Errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauko 56. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, espedientea bukatzeko.

Horretarako, aldi berean, Urduñako Udalak eskaturik, lagapen bidezko titulartasun aldaketari

## EXPONEN

I.- En virtud de lo dispuesto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, artículo 7 a) punto 8 de la Ley 2/83, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos y en el Decreto Foral de 17/85, de 5 de marzo, dictado en desarrollo de la citada Ley, los Órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, tienen la competencia exclusiva en la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras y caminos.

II.- El artículo 25.2 d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local determina entre las competencias propias de los municipios la de infraestructura viaria y otros equipamientos de su titularidad. Por su parte, el artículo 26 señala que todos los municipios deberán prestar, entre otros, los servicios de pavimentación de las vías públicas. En similares términos lo establece el artículo 17.1.16) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

III.- Que tanto el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia como el Ayuntamiento de Orduña consideran necesaria la ejecución de los trabajos que consisten y se identifican como sigue: "Mejora del sobreechancho de la curva situada en la carretera foral BI-4533, p.k. 46+820 Mendeika (T.M. Orduña)".

Que la ejecución de dichos trabajos tiene por objeto, mejorar el trazado de una curva de radio y anchura reducida, que provoca situaciones de peligro en los cruces de vehículos.

IV.- En este sentido las previsiones contenidas en el presente documento se establecen igualmente en orden a convenir el cambio de titularidad y la entrega de mutuo acuerdo de la carretera foral BI-4533 del p.k. 46+770 al p.k. 46+860 al Ayuntamiento de Orduña, en base a lo dispuesto en el art. 56 de la Norma Foral 5/2021, de 20 de octubre, de Carreteras de Bizkaia, a fin de concluir el correspondiente expediente.

A tal efecto se encuentra en tramitación paralela, previa petición del Ayuntamiento de Orduña, la



buruzko foru dekretuaren onespena tramitatzen ari da; bertan aldaketa horien funtzionaltasuna egiaztatzen da. Titulartasun-aldaketa foru dekretu hori betearaziz formalizatuko da bi alderdiek emate-akta sinatuta hitzarmen hau sinatzen den egintza berean.

**V.-** Hori dela eta, bi Administrazioen interesak bakoitzaren eskumenen ikuspegitik koordinatzeko, lankidetzaren eta eraginkortasunik eta ekonomiarik handienaren irizpideei jaramon eginik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 legearen 48. artikulua, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, haiekin bat datozen gainerako manuek eta aplikatu beharreko arauak herri administrazioei ematen dizkieten ahalmenak erabiliz, bi alderdiek honako LANKIDETZA-HITZARMEN hau formalizatzen dute, 40/2015 Legearen 47.2 "a" artikulua arabera eta ondoko klausula hauen arabera:

#### KLAUSULAK

##### 1.- HITZARMENAREN XEDEA ETA SUBJEKTU BAKOITZAK EGIN BEHARREKO JARDUKETAK

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretako eta Lurralde Garapenerako Sailaren eta Urduñako Udalaren arteko lankidetzak da honako hitzarmen honen xedea, "BI-4533 foru errepideko 46+820 kilometro-puntuan (Mendeika, Urduñako udal-mugartea) dagoen bihurtzearen gainzabalera hobetzeko lanak" egiteko. Obra horiek hitzarmen honi 1. eranskin gisa erantsitako aurreproiektuaren laburpen-memorian identifikatzen dira.

Dokumentu honetan definitutako administrazioen arteko lankidetzak eta elkarlana terminoen arabera, dokumentu honen xedea ere bada BI-4533 foru errepidearen 46+770 kptik 46+860 kprainoko tartearen titulartasuna aldatzea, bi alderdiek hala adostuta.

##### Urduñako Udala

1.-Urduñako Udalak BI-4533 foru errepidearen 46+770 kptik 46+860 kprainoko tartearen titulartasuna eskuratuko du.

2.- Hitzarmen hau dela bide eta behar bezala burutzeko, Urduñako Udalak, bere pentzura, jarriko ditu obrak egikartzeko beharrezkoak diren lurzoru, ondasun eta eskubideak, zerbitzu ukituen

aprobación del oportuno Decreto Foral sobre cambio de titularidad por cesión en el que se acredita la funcionalidad de dichos cambios, el cual se formalizará en ejecución del Decreto Foral mediante la suscripción del acta de entrega por ambas partes en el mismo acto de firma del presente Convenio.

**V.-** Que, a tal efecto, con el fin de coordinar los intereses de ambas Administraciones desde el punto de vista de sus respectivas competencias atendiendo a los criterios de cooperación y máxima eficacia y economía, y haciendo uso de las facultades que para las Administraciones Públicas resultan del artículo 48 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y del artículo 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local y demás preceptos concordantes y normativa aplicable, ambas partes proceden a formalizar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, de acuerdo al artículo 47.2 de la Ley 40/2015, "a" con arreglo a las siguientes:

#### CLÁUSULAS

##### 1.- OBJETO DEL CONVENIO Y ACTUACIONES A REALIZAR POR CADA SUJETO

Es objeto del presente Convenio la colaboración entre el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Orduña en orden a la ejecución de las obras de "Mejora del sobreechanco de curva situada en la carretera foral BI-4533 del p.k. 46+820 Mendeika (T.M. Orduña)" e identificadas en la memoria resumen del anteproyecto que se adjunta al presente convenio como Anexo I.

En los términos de colaboración y cooperación interadministrativa definidos en el presente documento, forma igualmente parte de su objeto convenir el cambio de titularidad y entrega de mutuo acuerdo de la carretera foral BI-4533 del p.k. 46+770 al p.k. 46+860.

##### Ayuntamiento de Orduña

1.- El Ayuntamiento de Orduña adquirirá la titularidad de la carretera foral BI-4533 del p.k. 46+770 al p.k. 46+860

2.- En virtud del presente convenio y para su debida ejecución el Ayuntamiento de Orduña procederá a su costa a la aportación del suelo, bienes y derechos necesarios para la ejecución de las obras, la gestión





kudeaketa eta baita ere ukituak diren haren udal zerbitzuen aldaketa, obrak hasi aurretik eskuratu izango direnak. Modu berean, Urduñako Udalaren ardura izango da, administrazio ukituen aldetik, baimen sektorialen lorpena.

Aurreko paragrafoan ezarritako betebeharrak ekonomikoak bete ahal izateko, Urduñako Udalak, aipaturiko gastuei oso-osorik aurre egiteko aurrekontu-kreditu egoki eta nahikoak onetsiko ditu bere aurrekontuaren kargura.

### Bizkaiko Foru Aldundia

1.- Hitzarmen honetan ezarritako ondorioetarako, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen izenburuan adierazitako jarduketara egiteko eta obrak exekutatzeke behar diren foru-zoruak jartzeko ere.

2.- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren betebeharra da hitzarmen honen xedean identifikatutako obra zuzentzea eta exekutatzea, dagozkion kontratuak likidatu arte; horretarako, beharrezko diren kontratazio-espedituek izapidetu beharko ditu.

### 2.-ALDERDIEK BEREN GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu beharko du obra proiektuan bildutako aurrekontukoaren arabera

Hobekuntza-lanaren ondoriozko konpromiso ekonomikoari aurre egiteko, dokumentu hau sinatu baino lehen daude onetsita behar hainbat eta egokiak diren aurrekontu-maileguak, beti ere kontserbazioaren kontu-sailaren kargura

### 3.- ALDERDIEK BEREN GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

de los servicios afectados, así como la modificación de sus servicios municipales afectados, que serán obtenidos de manera previa al inicio de las obras. De igual manera, el Ayuntamiento de Orduña se encargará de la consecución de las autorizaciones sectoriales de las administraciones afectadas.

Al objeto de poder cumplir con las obligaciones económicas establecidas en el párrafo precedente, el Ayuntamiento de Orduña aprobará con cargo exclusivo a su presupuesto los créditos presupuestarios adecuados y suficientes para hacer frente íntegramente a dichos gastos.

### Diputación Foral de Bizkaia

1.- A los efectos establecidos en el presente convenio el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a realizar la actuación señalada en el título del presente convenio, así como a la aportación de los suelos forales necesarios para la ejecución de las obras..

2.- Constituye obligación del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, dirigir y ejecutar la obra identificada en el objeto de este convenio, hasta la liquidación de los correspondientes contratos, debiendo tramitar a tal efecto los expedientes de contratación que resulten necesarios,

### 2.-OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ECONÓMICOS ASUMIDOS POR LAS PARTES

1.- Corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia la financiación de la obra de acuerdo presupuesto recogido en el proyecto de la actuación

En orden a hacer frente al compromiso económico derivado de la obra de mejora, están aprobados con anterioridad a la suscripción del presente documento, los créditos presupuestarios adecuados y suficientes que serán con cargo a la partida presupuestaria de conservación

### 3.- CONSECUENCIAS POR INCUMPLIMIENTOS DE LAS OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ASUMIDAS POR LAS PARTES



Aurreko puntuetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak hitzarmenaren suntsiarazpena ekarriko du, zortzigarren klausulan aurreikusitako ondorioekin ekarri ere. Horrez gain, bidezkoak diren erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio udalari.

#### 4. JARRAIPEN, ZAINZA ETA KONTROLERAKO MEKANISMOAK, HITZARMENAREN BETEARAZPENARI ETA HARTUTAKO KONPROMISOEI APLIKATZEKOAK

##### Jarraipen eta Kontrol Batzordea

Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzordea eratuko da, Urduñako Udaleko hiru ordezkari, Bizkaiko Foru Aldundi, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko beste hiru ordezkari osaturik. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko ordezkarietako bat batzordeko burua izango da (sailak berak izendaturik. Era berean, batzordearen idazkaritza burutuko duen pertsona bat izendatuko da.

Batzordearen eginkizunak hauek izango dira: hitzarmena interpretatu eta betetzean sortzen diren arazo guztiak ebaztea, hitzarmenean aurreikusitako jarduketan burutzapen normalaren jarraipena egitea, eta alderdi biak informaturik egoteko nahiz bion konpromisoak behar bezala betetzeko aukera ematen duten irizpide eta moduak zehaztea.

Hitzarmenaren indarraldian zehar, alderdietako edozeinen proposamenez, lanak behar bezala joan daitezten beharrezkoa den guztietan bilduko da batzordea, aldez aurretik biltzeko deialdia eginik.

Batzordea baliozkotasunez eratu ahal izateko quoruma batzordekideen gehiengoa izango da, eta batzordearen erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira.

Jarraipen Batzordeari funtzionamenduari buruz, hitzarmenean bere-beregi xedatutakoa ez denari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. ataleko 3. zenbakian jasotako kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

El incumplimiento de las obligaciones establecidas en los apartados precedentes dará lugar a la resolución del presente Convenio con los efectos previstos en su cláusula octava, sin perjuicio en todo caso de la exigencia de las responsabilidades al Ayuntamiento a que hubiera lugar.

#### 4.- MECANISMOS DE SEGUIMIENTO, VIGILANCIA Y CONTROL DE EJECUCIÓN DEL CONVENIO Y DE LOS COMPROMISOS ADQUIRIDOS

##### Comisión de Seguimiento y Control

Se constituirá una Comisión de Seguimiento del presente Convenio, integrada por tres representantes del Ayuntamiento de Orduña, otros tres representantes del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia, ostentando uno de los representantes del Departamento Foral la Presidencia de la Comisión (nombramiento por el Departamento). Asimismo, se nombrará una persona para ocupar la secretaría de la comisión.

Sus funciones serán las de resolver cuantas cuestiones pueda plantear la interpretación y el cumplimiento del presente Convenio, así como las de llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el mismo, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

Durante la vigencia del Convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la Comisión se reunirá previa convocatoria siempre que lo requiera la buena marcha de los trabajos.

El quórum necesario para la válida constitución de la Comisión será el de mayoría de sus miembros, adoptándose sus acuerdos por mayoría de votos.

En lo no previsto expresamente en el convenio sobre el funcionamiento de la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la Sección 3ª, del Capítulo II, del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.





## 5.- EMATE AKTA

Hitzarmen hau sinatzeko egintza berean emate-akta ere sinatzen du Urduñako Udalak. Izan ere, akta horren bidez BI-4533 foru errepidearen 46+770 kptik 46+860 kprainoko tartearen eta lurren titulartasunaren aldaketa formalizatzen da, aurrerantzean titularra udala izan dadin, hitzarmen honetan jasotako II. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Goian aipaturiko lagapena gorabehera, funtzionaltasuna, zerbitzu publikoa edota udalez gaindiko interes publikoko arrazoiengatik errepideen ustiapen egokia babesteko beharrezkotzat jotzen dituen ekintzak burutu edo neurriak hartu ahal izango ditu Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak edozein kasutan eta salbuespen modura, eta egintza edo neurriok berehala izango dira betearazi beharrekoak. Sailak, gainera, berehala eman beharko dio Urduñako Udalari halako egintza edo neurrien berri, jakitun egon dadin.

## 6.- HITZARMENA ALDATZEKO ARAUBIDEA

Sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmena aldatzeko.

## 7.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA

1.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta, berau interpretatu eta garatzean, herri administrazioen arteko lankidetzeta-hitzarmenei aplikatu beharreko antolamendu juridiko administratiboa beteko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan eta aplikatu beharreko arauetan ezarritakoaren arabera.

2.- Jarraipen Batzordeak ebatziko ditu hitzarmen hau interpretatu, bete eta betearaztean sortzen diren arazo guztiak, aurreko klausulan adierazia denaren arabera. Hala ere, akordiorik lortzen ez bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arduratuko da arazoez, berau izango delarik halakoak ebazteko eskuduna, jurisdikzio hori arautzen duen legean xedaturikoaren arabera.

## 8.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren

## 5.- ACTA DE ENTREGA

En el mismo acto de firma del presente Convenio el Ayuntamiento de Orduña firma el Acta de entrega por la cual se formaliza el cambio de titularidad del tramo de la carretera foral BI-4533 del p.k. 46+770 al p.k. 46+860 y terrenos que pasará a ser de titularidad municipal, conforme a lo dispuesto en el Anexo II que se adjunta al presente convenio.

No obstante la anterior cesión el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial podrá dictar en todo caso y con carácter excepcional los actos o medidas que juzgue necesarios, los cuales serán inmediatamente ejecutivos, en defensa de la funcionalidad, del servicio público y de la correcta explotación de las carreteras por razones de interés público supramunicipal, debiendo notificar de modo inmediato al Ayuntamiento de Orduña tales actos o medidas para su debido conocimiento.

## 6.- RÉGIMEN DE MODIFICACIÓN DEL CONVENIO

La modificación del convenio requerirá acuerdo unánime de las partes firmantes.

## 7.- RÉGIMEN E INTERPRETACIÓN DEL CONVENIO

1. El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas, según lo establecido en el artículo 48 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico y demás preceptos concordantes y normativa aplicable.

2. La resolución de los problemas de interpretación y cumplimiento que pueda plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la Comisión de Seguimiento según lo referido en la cláusula anterior. Ello sin perjuicio de que no alcanzado un acuerdo, el orden jurisdiccional contencioso-administrativo conocerá y será competente para resolver dichas cuestiones según lo dispuesto en su ley reguladora.

## 8.- PLAZO DE VIGENCIA DEL CONVENIO

En aplicación de la Ley 40/2015 de 1 de octubre de



1eko 40/2015 Legea aplikatuz, lankidetzaz hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatuko den egunean eta horrela jarraituko du hitzarmenaren xede diren obrak jaso eta likidatu arte. Nolanahi ere, gehienez 4 urtez iraungo du hitzarmen honek. Epe hori igaro eta gero aldeek epea luzatzea adostu dezakete, aho batez, beste lau urtez, edo indarraldia bukatutzat eman.

## 9.- HITZARMENA AZKENTZEA

1.- Osorik betetzearen edo suntsiaraztearen zioz azkenduko da hitzarmen hau.

2.- Hitzarmen hau suntsiarazteko zioak izango dira:

- Indarraldia bukatzea hitzarmena luzatzeko erabakirik hartu gabe.
- Sinatzaileek aho batez hartutako erabakia.
- Sinatzaileen arteko batek hartu dituen betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- Epaileak deuseztasuna adierazteko erabakia hartzea.
- Legeetan aurreikusitako beste edozein zioengatik.

## 10.- GARDENTASUNA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak Hitzarmen hau onetsi, Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 3.3 artikularekin bat 9.1.e). artikuluan ezarritakoaren arabera, BFAren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.

## 11.- EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Esku hartzen duten alderdiek genero ikuspegia txertatuko dute hitzarmen honen harira dagozkien jarduketak guztietan, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoari jarraikiz.

## 12. ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmenak administrazio-izaera du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen atariko titularen VI. kapituluaren xedatzen denaren arabera.

Régimen Jurídico del Sector Público, el presente convenio de colaboración entrará en vigor el día de su firma, y estará vigente hasta la recepción y liquidación de las obras objeto del mismo. Sin embargo, su duración máxima no excederá de 4 años, pudiendo una vez transcurrido ese plazo acordar unánimemente una prórroga por un periodo de cuatro años adicionales o su extinción.

## 9.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO

1.- El presente convenio se extinguirá por su íntegro cumplimiento o por resolución.

2.- Serán causas resolutorias del presente convenio:

- El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- El acuerdo unánime de todos los firmantes.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.
- Por decisión judicial declaratoria de nulidad.
- Por cualquier otra causa prevista en las leyes

## 10.- TRANSPARENCIA

Una vez aprobado el presente convenio por el Consejo de Gobierno de Diputación Foral de Bizkaia, conforme con lo dispuesto en el artículo 9.1.e) en relación con el artículo 3.3 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, la Diputación Foral de Bizkaia el mismo será publicado en el Portal de Transparencia de DFB.

## 11- IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

Las partes intervinientes incluirán la perspectiva de género en todas las actuaciones que les corresponda realizar en relación con el presente convenio, conforme con lo establecido en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres.

## 12.- RÉGIMEN JURÍDICO

El presente convenio es de naturaleza administrativa conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.



Hitzarmen honek bete egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren 46 artikuluan ezarritako baldintzak. Foru-dekretu horrek, izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten du, zeinak garatzen baitu Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina.

Hitzarmenaren garapenean eta betearazpenean alderdien artean auziren bat sortzen bada, eta laugarren klausulan aipatutako jarraipen-batzordeak ezin badu konpondu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren barruan ebatziko dira, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

Hitzarmen honetan aurrez ikusten ez diren gai guztietan hauek aplikatu beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, eta aplikatu beharreko gainerako xedapen guztiak.

Eta aurreko guztia onartu eta berarekin ados direla adierazteko, esku-hartzaileek hitzarmen hau sinatzen dute.

**URDUÑAKO ALKATE-UDALBURUA**

**EL ALCALDE-PRESIDENTE DEL  
AYUNTAMIENTO DE URDUÑA**

Sin./Fdo.: Iker Santocildes Pérez

El presente convenio cumple con los requisitos establecidos en el art. 46 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del texto refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del convenio y que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento y Control prevista en la Cláusula Cuarta se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contenciosos-Administrativa.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, el Decreto Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, y su Reglamento, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Y en prueba de conformidad y aceptación de cuanto antecede, los intervinientes firman el presente documento.

**AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE  
GARAPENERAKO SAILEKO FORU DIPUTATUA**

**DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE  
INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO  
TERRITORIAL**

Sin./Fdo.: Carlos Alzaga Sagastasoloa



## I. ERANSKINA - ANEXO I

### OBRAK DESKRIBATZEKO MEMORIA - MEMORIA DESCRIPTIVA DE LAS OBRAS

Obren helburua da 6,50 metroko plataforma bat lortzea puntu kritikoan; horretarako, eskuineko ertzean dagoen horma eraitsi behar da.

Beharrezko plataforma lortu ondoren, 0,30 m-ko ertz-erreten bat egingo da, eta batez beste 1,10 m-ko altuera duen horma bat, harriz xaflatutako hormigoizkoa. Horren gainean, 1,80 m-ko altuera duen itxitura bat jarriko da, sare eta ezkutatze-ehunez egina.

Azkenik, kaltetutako zatia asfaltatuko da nahasketa bituminosoarekin, eta bide-markak berriro pintatuko dira.

Las obras tienen como objeto conseguir una plataforma de 6,50 m en su punto crítico, para lo cual es preciso la demolición del muro existente en la margen derecha.

Una vez conseguida la plataforma necesaria, se procederá a la ejecución de una rigola de 0.30 m y un muro de una altura media de 1,10 m de hormigón enchapado en piedra sobre el que se situará un cierre a base de malla y tejido de ocultación de 1,80 m de altura.

Por último, se procederá al asfaltado del tramo afectado con mezcla bituminosa y repintado de marcas viales.



II. ERANSKINA - ANEXO II  
LAGAPENA - CESIÓN

